

3. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure enpresak sortutako aplikazioa **merkatu masibora** bideratuta dago, antzerako beharrak eta arazoak dituzten kontsumitzaileentzat, denontzat eskuragarri izan daitekeena. Gure bizimodu azkar honetan lagungarria izan daitekeen produktua da, merkatu osarako lagungarria izanik, gaztejendearentzat, lanpetuta ibiltzen direnentzat, ikasleen pisukoentzat, independizatu berri den jendearentzat... pentsatuta dagoen aplikazioa da.

Laburbilduz, gure produktuaren, hau da, gure aplikazioaren merkatua **gizarte guztiari bideratua** izango da, betiere bakoitzaren bizimodu edo bizi estiloaren arabera eta gure produktua pertsoneri iristarazteko segmentua eta **kanala** berriz, aplikazio erakargarria egiteaz gain, gehienbat **publizitatea** izango da, non gure enpresaren baloreak azalduko ditugun: besteak beste, janari osasuntsua, bertakoa, ekologikoa eta garaian garaikoa.